

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4204

1057/2019 EBAZPENA, uztailaren 16koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Ebazpen horren bidez argitaratzen dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zerbitzu Sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Administrazio eta Kudeaketako Goi-Mailako Teknikari, Ekonomiako Goi-Mailako Teknikari, Juridikoko Goi-Mailako Teknikari eta Antolaketako Goi-Mailako Teknikarien Lekualdatze-Lehiaketan onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak, eta behin betiko esleitzen dira deitutako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 10eko 1403/2017 Ebazpenaren bidez deitu zen kudeaketako eta zerbitzuetako langileen lekualdatze-lehiaketa, zeina 2017ko azaroaren 28ko EHAA (227. zk.) argitaratu baitzen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren urriaren 1eko 709/2018 Ebazpenaren bidez jendaurrean jarri ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten kudeaketako eta zerbitzuetako langileen lekualdatze-lehiaketan onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak, eta behin-behinean esleitu ziren deitutako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 10eko 1403/2017 Ebazpenaren 5.2. oinarrian xedatutakoari jarraiturik, Administrazio eta Kudeaketako Goi-mailako Teknikari, Ekonomiako Goi-mailako Teknikari, Juridikoko Goi-mailako Teknikari eta Antolaketako Goi-mailako Teknikarien destino-esleipenaren behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu eta Zuzendaritza Nagusi honetara bideratu ostean, indarreko legeriak pertsonal-arloan ematen dizkidan eskumenak baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Administrazio eta Kudeaketako Goi-mailako Teknikari, Ekonomiako Goi-mailako Teknikari, Juridikoko Goi-mailako Teknikari eta Antolaketako Goi-mailako Teknikarietako destinoak esleitzeko lekualdatze-lehiaketan onartutako langileen behin betiko zerrenda onartzea, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran. Lekualdatze-lehiaketa hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 10eko 1403/2017 Ebazpenaren bidez deitu zen.

Bigarrena.– Administrazio eta Kudeaketako Goi-mailako Teknikari, Ekonomiako Goi-mailako Teknikari, Juridikoko Goi-mailako Teknikari eta Antolaketako Goi-mailako Teknikarietako destinoak esleitzeko lekualdatze-lehiaketan baztertutako langileen behin betiko zerrenda onartzea, baita baztertzeko arrazoiak azaltzea ere, Ebazpen honen II. eranskinaren bidez.

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 10eko 1403/2017 Ebazpenaren I. eranskinean eskainitako destinoen (Administrazio eta Kudeaketako Goi-mailako Teknikari, Ekonomiako Goi-mailako Teknikari, Juridikoko Goi-mailako Teknikari eta Antolaketako Goi-mailako Teknikariak) langile esleipendunen behin betiko zerrenda argitara dadin agintzea, lortutako puntuazioaren hurrenkeran, Ebazpen honen III. eranskinean.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 10eko 1403/2017 Ebazpenaren 5. oinarrian xedatutakoari jarraiturik, destinoak izangaiaren eskaeraren eta lortutako

puntuazioaren arabera esleituko zaizkie izangaiei, betiere, derrigorrezko mugikortasun-prozesua izan duten pertsonak beren lanpostu funtzionalari dagokion destinoa lortzeko duten lehentasuna errespetatuz, prozesu horien araudi espezifikoak hala ezarri duenean lekualdatze-lehiaketa honetarako, baldin eta lehiaketa hau haien lanpostu berrian modu eraginkorrean lanean hasi direnetik deitu duten lehenengoa bada, lehentasun hori behin betiko barne-mugikortasuneko prozesu batean eraginkorra egin ez bada, eta eskaerak aurkezteko epearen barruan hala alegatu badute.

Laugarrena.– Destinoa lortzen duten izangaiek betetzen ari diren destinoa utzi beharko dute, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.

Izangaiek, oro har, aurreko destinoa utzi eta hiru eguneko epean jabetu beharko dira lanpostuaz, baldin eta lanpostuak herri berean badaude; bost eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batean badaude; eta hilabeteko epean, izangaiek osasun-zerbitzuz aldatu behar badute. Emandako destinoaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen badira izangaiek, hilabeteko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostuaz jabetzerakoan, esleipendunak zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo behin-behineko atxikipenean badaude destinoa betetzen Osakidetzan, aurreko paragrafoan aurreikusten den epea izango dute lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, hura zenbartzeko, betetzen duen destinoa ere kontuan hartu beharko da, azken horren esleipendun ez bada behintzat. Horrela izanez gero, destinoen behin betiko esleipenaren Ebazpena EHAAn argitaratu (behin-behineko esleipenen kasuetan) edo kargua utzi (zerbitzu-eginkizunen eta aldi baterako barne-sustapenen kasuetan) eta hurrengo egunean jabetu beharko baita lanpostuaz.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Seigarrena.– Deialdiaren 5.2. oinarrian xedatutakoaren arabera, Ebazpena honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari hilabeteko epean, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 16a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN LUIS DIEGO CASALS.

2019ko irailaren 16a, astelehena

I. ERANSKINA

ONARTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Kategoria: Goi-Mailako Tituluduna – Administrazio eta Kudeaketako Goi-Tek.

Lanpostu funtzionala Goi-Mailako Tituluduna – Administrazio eta Kudeaketako Goi-Tek.

NAN	Izen-abizenak	Guztira
***6610**	Gorosabel Larrañaga, Oswaldo	55,4480
***5291**	Martcorena Oses, Maria Jose	48,0450
***2837**	Galindez Zubiria, Ana Maria	33,3410

Kategoria: Goi-Mailako Tituluduna Ekonomiako Goi-Tek.

Lanpostu funtzionala Goi-Mailako Tituluduna Ekonomiako Goi-Tek.

NAN	Izen-abizenak	Guztira
***3486**	Eleta Ruiz, Francisco Jose	49,4340
***8359**	Ruiz De Eguino Langarica, Jaime	43,0920
***5820**	Leyaristi Areta, Maria Amaya	41,6770

Kategoria: Goi-Mailako Tituluduna / Letradua – Juridikoko Goi-Tek.

Lanpostu funtzionala Goi-Mailako Tituluduna / Letradua – Juridikoko Goi-Tek.

NAN	Izen-abizenak	Guztira
***2246**	Santamaria Garcia, Ander	52,8000
***3027**	Echevarria Sagastagoitia, Juan Bautista	50,4530
***5017**	Olabarri Espiga, Maria Iciar	50,4370
***5427**	Urtusagasti Orue, Francisco	42,4840

Kategoria: Goi-Mailako Tituluduna – Antolakuntzako Goi-Tek.

Lanpostu funtzionala Goi-Mailako Tituluduna – Antolakuntzako Goi-Tek.

NAN	Izen-abizenak	Guztira
***4960**	Elexpuru Marcaida, Jose Luis	66,1650
***6610**	Gorosabel Larrañaga, Oswaldo	55,4480
***0321**	Matthies Baraibar, Maria Carmen	50,7210
***6557**	Esparza Garcia, Elixabete	47,7510
***3490**	Lopez Ortiz, Monica	47,4190
***6071**	Olaetxea Urizar, Esther	46,9590
***9580**	Martin Gonzalez, Vanesa	42,6670
***6831**	Llarena Cuevas, Maria Jose	38,8350
***2837**	Galindez Zubiria, Ana Maria	33,3410
***9272**	Pedrosa Rodero, Francisco Javier	31,2120
***4644**	Litago Sola, Esther	20,0390

2019ko irailaren 16a, astelehena

II. ERANSKINA

BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Kategoria: Goi-Mailako Tituluduna – Administrazio eta Kudeaketako Goi-Tek.

Lanpostu funtzionala Goi-Mailako Tituluduna – Administrazio eta Kudeaketako Goi-Tek.

NAN	Izen-abizenak	Bazterketaren kausa
***3486**	Eleta Ruiz, Francisco Jose	Ez du plazarik kategorian
***5820**	Leyaristi Areta, Maria Amaya	Ez du plazarik kategorian

Kategoria: Goi-Mailako Tituluduna Ekonomiako Goi-Tek.

Lanpostu funtzionala Goi-Mailako Tituluduna Ekonomiako Goi-Tek.

NAN	Izen-abizenak	Bazterketaren kausa
***6912**	Gorraiz Erausquin, Maria Jesus	Interesdunak eskatuta ezeztatu

Kategoria: Goi-Mailako Tituluduna / Letradua – Juridikoko Goi-Tek.

Lanpostu funtzionala Goi-Mailako Tituluduna / Letradua – Juridikoko Goi-Tek.

NAN	Izen-abizenak	Bazterketaren kausa
***2538**	Aldama Lopez De Viñaspre, Eva	Interesdunak eskatuta ezeztatu
***9190**	Aparicio Sanz, Miriam	Interesdunak eskatuta ezeztatu
***5291**	Martcorena Osés, Maria Jose	Ez du plazarik kategorian
***3361**	Martin Sanchez, Eusebio	Interesdunak eskatuta ezeztatu
***2924**	Santamaria Sandi, Jaime	Ez du plazarik kategorian

Kategoria: Goi-Mailako Tituluduna – Antolakuntzako Goi-Tek.

Lanpostu funtzionala Goi-Mailako Tituluduna – Antolakuntzako Goi-Tek.

NAN	Izen-abizenak	Bazterketaren kausa
***3486**	Eleta Ruiz, Francisco Jose	Ez du plazarik kategorian
***6454**	Escolastico Larizgoitia, Argiñe	Interesdunak eskatuta ezeztatu
***5820**	Leyaristi Areta, Maria Amaya	Ez du plazarik kategorian
***5017**	Olabarri Espiga, Maria Iciar	Ez du plazarik kategorian
***2924**	Santamaria Sandi, Jaime	Ez du plazarik kategorian

2019ko irailaren 16a, astelehena

III. ERANSKINA
LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA

Kategoria: Goi-Mailako Tituluduna – Administrazio eta Kudeaketako Goi-Tek.
Lanpostu funtzionala Goi-Mailako Tituluduna – Administrazio eta Kudeaketako Goi-Tek.

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa	HE	Derrig data	Lanaldia
***5291**	Martcorena Oses, Maria Jose	Barakaldo-Sestaoko ESI	OSI Barakaldo-Sestao, Hospital San Eloy	3	2016-12-03	
***2837**	Galindez Zubiria, Ana Maria	Donostialdea ESI	Donostialdea ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	3		

Kategoria: Goi-Mailako Tituluduna Ekonomiko Goi-Tek.
Lanpostu funtzionala Goi-Mailako Tituluduna Ekonomiko Goi-Tek.

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa	HE	Derrig data	Lanaldia
***3486**	Eleta Ruiz, Francisco Jose	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea	Gipuzkoako OMS, Administrazioa eta Pertsonala	3	2011-06-01	
***8359**	Ruiz De Eguino Langarica, Jaime	Araba ESI	Araba ESla, Arabako Unibertsitate Ospitalea	3		

Kategoria: Goi-Mailako Tituluduna / Letradua – Juridikoko Goi-Tek.
Lanpostu funtzionala Goi-Mailako Tituluduna / Letradua – Juridikoko Goi-Tek.

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa	HE	Derrig data	Lanaldia
***2246**	Santamaria Garcia, Ander	Zuzendaritza Nagusia	Zuzendaritza Nagusia, Araba	3	2005-06-01	
***3027**	Echevarria Sagastagoitia, Juan Bautista	Bilbo-Basurtu ESI	Bilbo-Basurtu ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	3		

2019ko irailaren 16a, astelehena

Kategoria: Goi-Mailako Tituluduna – Antolakuntzako Goi-Tek.
Lanpostu funtzionala Goi-Mailako Tituluduna – Antolakuntzako Goi-Tek.

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa	HE	Derrig data	Lanaldia
***4960**	Elexpuru Marcaida, Jose Luis	Bilbo-Basurtu ESI	Bilbo-Basurtu ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea 3HE 1-2013/12/03	3	2013-12-03	
***6610**	Gorosabel Larrañaga, Oswaldo	Donostialdea ESI	Donostialdea ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	3		
***3490**	Lopez Ortiz, Monica	Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzea ESI	Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	3		
***9580**	Martin Gonzalez, Vanesa	Barakaldo-Sestaoko ESI	Barakaldo-Sestaoko ESla, San Eloy Ospitalea	3		